



EBAZPENA, 2021eko apirilaren 16koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletan ere, hutsik dauden Maisu-maistren kidegoko behin betiko lanpostuak.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2020ko azaroaren 4a),

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, eta Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 22ko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, lehiaketa horretan eskainitako behin betiko lanpostu hutsak argitaratzen dira.

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen I. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen II. Eranskinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Hirugarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen III. eranskinean Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.



Laugarren artikulua.- Interesatuek gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 16a